ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko otsailaren 12a, ostirala • 17 zk.

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Araban, Erriberagoitiako udalerrian, Pobes herriko zalditegi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2020-0015

Eskatzailea: Mecanizados Vitoria, SA

Mecanizados Vitoria, SA enpresak eskatu du Erriberagoitiako udalerrian, Pobes herrian (6. poligonoko 809. lursailean) zalditegi batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, instalatuko den arazketa sistema batekin. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 12a

Isurketa arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2021.02.12 06:25:37 Z